



## Nazioarteko Argazki Lehiaketa “EMAKUMEAK BEREN LURRALDEA DEFENDATZEN”

### Sarrera

Historia ofizialean ematen du gizonek bakarrik egin dutela borroka lurraldearen alde, (goi-mailako klaseko gizon zuriek) jarritako mugak defendatu dituztelako, nazioaren alde edo herri bakoitzaren alde, gerren eta gatazka armatuen bitartez.

Gizonak herrien eta gizartearen eskubideen eraikuntzan egindako lana justifikatzeko sortutako historia; gizonak kanpoan (espazio publikoetan) borroka egin behar duela, eta, aitzitik, emakumeek barruan – lurraldearen barruan nahiz etxearen barruan– (espazio pribatuetan) geratu behar dutela sinestarazteko historia; egia esan, kontatu ez diren hainbat historiaren bitartez eraikitzen den historia; historiak ezkutatu dituen historiak, eta benetako historia eraikitzeke nahitaez kontatu behar diren historiak.

Zehazki, emakumea etxea, edo familiak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzen aritu izan ez balitz, komunitatean parte hartuz gizona ez zegoenean, bere kultura eta idiosinkrasia defendatzeko mobilizatuz, bere aurkako bidegabekeriaren aurrean segurtasuna erakutsiz, bere familiak mantentzeko elikagaiak lortzeko lurra landuz eta abar..., laburbilduz, bizitza aurrera ateratzen aritu ez balitz berak zeukan eta edukitzen uzten zioten gutxiarekin, ezin izango ziren hainbeste pertsona bizirik atera. Baina, iraganeko bertsio eta ikuspegi hori ezkutatu egiten da; errazagoa da heriotzak kuantifikatzea emakumeak bere gorputza, bere lurra eta bere lurraldea defendatzeko egindako etengabeko borroka kualifikatzea baino.

Horregatik, nazioarteko argazki-lehiaketa honen bitartez, emakumeak espazio publikoetan nahiz pribatuetan egin dituen, egiten dituen eta egingo dituen borroka mota guztiak azaleratu nahi ditugu, zeren edozein emakume bere bizitzako xehetasunik txikiena aldatzen saiatzen bada, politika egiten ari baita; izan ere, ahalduntzea bera barrutik hasten da eta kanpora ateratzen da.

Proposatu dugu lehiaketa nazioartera eramatea emakumeak munduko leku desberdinetan (Guatemalan, Chiapasen eta Euskal Herrian, zehazki) borroka egiteko erabili dituen modu desberdinak erakusteko.

### Zeintzuk dira antolatzaileak?

Lehiaketa Mugen Gaietik GGKE erakundeak antolatu du Chiapaseko Emakumearen Eskubideen Zentroaren (CDMCH) eta Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Unitatearen (UDEFEGUA) laguntzarekin.

**Mugen Gaietik,** Hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan aritzeko elkarte bat da, gizarte-eraldaketa Iparraldean ere bilatzen duena. Garapen-eredu batek eragindako herri askoren egoera bidegabean bozgorailu izan nahi du. Eredu horrek herrialde gutxi batzuek eta talde gutxi batzuek besteen gainean duten menderatze ekonomikoa, politikoa eta kulturala ezartzen du, desberdintasunak areagotzen ditu herrialde guztietan, herrialdeak pobretzen ditu eta are gehiago emakumeak, eta ez ditu pertsonak garapenaren erdian kokatzen. Gizarte-bazterketaren, degradazio ekologikoaren, militarismoaren, arrazakeriaren eta matxismoaren aurka gaude, horiek guztiek jarduteko modu berean sartzen dituzte beren erroak, non ondasunak gurtzen diren eta pertsonak mespretxatzen diren.

*Babesleak:*

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gastronomia  
eta Kirol Departamentua





**Chiapaseko Emakumearen Eskubideen Zentroak** (CDMCH) aldatu egin nahi ditu generoa, etnia eta klasea direla medio emakumeek pairatzen dituzten diskriminazio- eta mendekotasun-harremanak, eta emakumeen autonomia indibiduala eta antolamendu-autonomia bultzatzen ditu.

Zentro horren helburua generoaren, klasearen eta etniaren alorreko berdintasunari dagokionez, Chiapasen eta bereziki indigenen eta nekazarien eskualdeetan aurrera egiten laguntzea da, Chiapasen dauden zuzenbide-sistema desberdinei buruzko ezagutza eta ariketa kritikoa sustatuz, eta aniztasun juridiko horretatik abiatuta aldaketa egokiak sustatuz ohitura eta lege diskriminatzaillean, baita lege eta ohitura horiek aplikatzeko moduetan ere, aplikazio modu horiek emakumeen eskubideak urratzen baitituzte.

**UDEFEGUA** (Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Unitatea, Guatemala) Giza Eskubideen defendatzaileei zerbitzu bat ematen espezializatu den giza eskubideen erakunde bat da, emakumeek eta gizonek Giza Eskubideak defendatzeko egiten duten lanarengatik pairatzen dituzten erasoak bideratzeko, ikertzeko, salatzeke, babesteko eta monitorizatzeko. Unitate horren asmoa defendatzaileak ahalduntzea da eskubideak defendatzeko lanean beren segurtasuna kudeatzearen eta autokudeatzearen arloan.

UDEFEGUA Unitatearen lana maila nazionalean egiten da, defendatzaileek bizi duten arriskuari erantzuten diolako defendatzaileak kalteberatasun-egoeran dauden edozein tokitan. Era berean, segurtasun-ekintzak (prebentziozkoak) garatzeari dagokionez, eremu mesoamerikarrean lan egiten da.

## Nola parte hartzen da?

1. Parte-hartzaile bakoitzak argazki bat bidali behar du helbide elektronikoa honetara: [cooperacion@mugengaienetik.org](mailto:cooperacion@mugengaienetik.org), eta mezua gaian honako hau jarri beharko du: **“Nazioarteko argazki-lehiaketa”**.

Mezuan honako datu hauek zehaztu beharko dira: egilearen **izena**, argazkia **non** egin den –argazkiak irudikatzen duena edo sinbolizatu nahi duena zertxobait kontatuz– eta zer **herrialdeetatik** bidali den; izan ere, arestian esan dugunez, 3 herrialdek hartuko dute parte lehiaketan.

2. Parte-hartzaile bakoitzak argazki bat bakarrik aurkeztu ahal izango du.

3. Argazkiak jatorrizkoak izango dira, **JPG formatuan** bidali behar dira eta kalitate onekoak izango dira (3000px). Beste formatu batzuetan bidalitako argazkiak EZ dira lehiaketan sartuko.

4. Argazkiak aurkezteko hilabeteko epea dago, **2019ko maiatzaren 1etik 31ra**.

## Nork osatuko du epaimahaia?

Argazki-lehiaketaren ebazpena emateko, epaimahai bat osatuko da. Epaimahai hori 5 pertsonak osatuko dute, eta honako hauek izango dira: UDEFEGUA Unitateko emakume 1, Guatemala ordezkatzuz; CDMCH Zentroko emakume 1; Chiapas ordezkatzuz; UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko emakumezko irakasle 1, UPV/EHUko Klinika Juridikoko kide 1; eta Mugen Gaienetik erakundearen talde teknikoko emakume 1. Guztira, 4 emakume eta 1 gizon. Epaimahaiak aho batez hartuko du erabakia, eta sariak eman gabe utzi ahal izango dira, aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez badute.



## Nola egingo da ebazpena?

Nazio bakoitzean 3 argazki aukeratu dira, hau da, Guatemalako 3, Chiapaseko 3 eta Euskal Herriko beste 3. Ekainaren 15etik aurrera, saria irabazi dutenek mezu elektronikoko bat jasoko dute, saridunak direla jakinaraziz.

Egun horretan bertan, lehiaketaren ebazpena Mugen Gainetik erakundearen webgunera igoko da, lehiaketaren emaitza ofizialtzeko asmoz. Argazki saridunak, erakusgarri gisa, Mugen Gainetik erakundearen webgunera igoko dira eta sare sozialen bitartez hedatuko dira (Facebook: Mugen Gainetik; Twitter: @MugenGainetik).

## Sariak

Lehiaketa honetan 9 sari daude irabazi duten 9 argazkietarako. Sariak honela banatu dira:

- 3 Opari Txekeak Chiapasen
- 3 Opari Txekeak Euskal Herrian
- 3 Opari Txekeak Guatemalan

Bederatzi sariak argazki edo teknologia dendaren batean gastatzeko **175€-tako (3,500 peso mexikar, 1,500 Quetzal) Opari Txekeak** izango dira. Sariak Mugen Gainetik elkarteak, CDMCH Zentroak eta UDEFEGUA Unitateak emango dizkiete irabazleei.

## Zer jakin behar dut egile-eskubideei buruz?

Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak, argazkia bidaltzeagatik soilik egile-eskubideak lagatzen dituzte, eta horrekin batera, erreproduzitzeko eta hedatzeko eskubideak 4 urteko eperako. Mugen Gainetik erakundeak konpromisoa hartzen du erabiltzen dituen argazkien egilea zein den hedatzeko. Saritutako argazkiak geroago antolatuko diren argazki-lehiaketak egiteko erabili ahal izango dira.

Mugen Gainetik erakundeak konpromisoa hartzen du inolako etekin ekonomikorik EZ ateratzeko aurkeztutako argazkiekin eta ez saltzeko egilearen baimenik gabe.

Lehiaketan parte hartzen duen pertsona bakoitza bere lanaren eduki osoaren erantzule da.

## Oinarriak onartzea

Argazki bat aurkeztuz, lehiaketan parte hartzen denean, lehiaketaren Oinarri Arautzaileak automatikoki onartzea dakar.

Informazio gehiago nahi izanez gero edo zalantza bat argitu nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

[cooperacion@mugengainetik.org](mailto:cooperacion@mugengainetik.org)

**Esaten dute irudi batek mila hitzek baino gehiago adierazten duela; beraz, irudika dezagun eta izoztu dezagun emakumea bere lurraldearen alde borroka egiten ari den unea!**

Babesleak:

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gastronomia  
eta Kirol Departamentua

